

Jardunaldiak Euskarazko Bikoizketaren inguruan

2006/11/17

Azaroaren 23an jardunaldi batzuk egingo dira **Eskoriatzan**, **Mondragon Unibertsitatearen HUHEZI fakultatean**, eta bertan **euskarazko bikoizketa** izango da aztergai.

EIZIEk antolatuta dituzten jardunaldiak, **Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpretarien Elkarteak**, Mondragon Unibertsitateko **HUHEZI** fakultatearen laguntzarekin. Egun bateko saioa izango da, euskarazko bikoizketan diharduten profesionalen artekoa, eta irekia jarduera horretan interesa duten guztiei: itzultzaileak oro har, eta ikus-entzunezko komunikazioaren esparruan ari diren ikasleak, profesionalak eta adituak.

Jardunaldiotan euskarazko bikoizketaren ezaugarriak eta berezitasunak aztertuko dira: telebista eta zinema; publizitatea. Bikoizketaren garrantzia **euskararen normalizazioan**.

EGITARAUA

- **09:00** Jardunaldiaren *aurkezpena*.
- **09:30** *Jesus Eguzkitza* (Mixer - Edertrack): Bikoizketa, hizketaren lantegia. Hitza = arnasa / Esan-bidearen gurpila / Hizketaren araubidea. Euskaraz asmatzeko, bizitzeko, maitatzeko, saltzeko... gai ez bagara, gureak egin du.
- **11:00** *Atsedena*
- **11:30** *Iñaki Zubizarreta* (Mixer - Irusoin): Euskarazko bertsioa nola prestatzen den: itzulpen-egokitzapena. Pertsonaien ezaugarriak eta hizkuntza erregistroak. Publizitatea. Bikoizketaren garrantzia euskara biziberritzeko.
- **12:30** *Marian Galarraga* (Tinko): Zinemarako euskarazko bikoizketa: erdal filmak euskarara, euskarazko filmak erdaretara. Ikusleak eta banaketa: majorrak.
- **14:00** *Bazkaria*
- **15:30** *Asier Larrinaga* (ETB): Bezeroaren ikuspegia: egin ostekoaren inguruko hausnarketa.
- **17:00** Jardunaldiaren *laburpena eta ondorioak*

